

XAKEKO TALDEKAKO EUSKAL LIGA

(2022ko urtarrilaren 29tik martxoaren 26ra)

Partidak 90 minutukoak dira, gehi 30 segundo gehiago jokaldiko. Iaz denboraldi berezia izan zen koronabirusaren pandemiagatik. Aurten berregituratu da Euskal Liga. Ohorezko Mailaz gain, Lehenengo Maila izanen dugu, baina bi multzotan banatuta.

OHOREZKO MAILA

Azkeneko bi taldeak Lehenengo Mailara jaitsiko dira.

2022-03-26: BEDERATZIGARREN TXANDA (AZKENA)

Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (18) – Easo (Donostia, Gipuzkoa) (0): 4-0 (jokatu gabe).

Orvina (Iruñea, Nafarroa) (17'5) – **Gros A (Donostia, Gipuzkoa) (29)**: 0'5-3'5.

Unai Garbisu De Goñi (2.453) (Orvina) – Alejandro Franco Alonso (2.421) (Gros A): 0'5-0'5.

Santiago Gonzalez De la Torre (2.434) (Gros A) – Pablo Urriza Iricibar (2.271) (Orvina): 1-0.

Gonzalo Mombiela Martinez (2.090) (Orvina) – **Jose Luis Muñoz Avila (2.219) (Gros A)**: 0-1.

Nathaniel Capote Robayna (2.190) (Gros A) – Unax Senosiain Noriega (1.229) (Orvina): 1-0.

Calasanz (Gasteiz, Araba) (0) – **Abadiño (Bizkaia) (14'5)**: 0-4 (jokatu gabe).

Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa) (18) – San Viator (Gasteiz, Araba) (17'5): 2'5-1'5.

Iñigo Martinez Martin (2.142) (Donibane Kirol Elkartea) – Igor Villalta Bustillo (2.250) (San Viator): 1-0.

Mikel Zubizarreta Riego (1.933) (San Viator) – **Javier Lizuain Toni (2.043) (Donibane Kirol Elkartea)**: 0-1.

Miguel Argaya Urdaniz (1.910) (Donibane Kirol Elkartea) – Diego Sanz Uruena (1.825) (San Viator): 0'5-0'5.

Daniel Vara Del Bosque (1.689) (San Viator) – Unax Vizcay Martinez (1.100) (Donibane Kirol Elkartea): 1-0.

Martintxo (Gasteiz, Araba) (21'5) – **Zornotza (Bizkaia) (20)**: 1'5-2'5.

SAILKAPENA

- 1) **Gros A (Donostia, Gipuzkoa) – 32'5 puntu.**
- 2) **Martintxo (Gasteiz, Araba) – 23 puntu.**
- 3) **Zornotza (Bizkaia) – 22'5 puntu.**
- 4) Conteneo (Bilbo, Bizkaia) – 22 puntu.
- 5) Donibane Kirol Elkarte (Iruñea, Nafarroa) – 20'5 puntu.
- 6) San Viator (Gasteiz, Araba) – 19 puntu.
- 7) Abadiño (Bizkaia) – 18'5 puntu.
- 8) Orvina (Iruñea, Nafarroa) – 18 puntu.
- 9) **Calasanz (Gasteiz, Araba) – 0 puntu.**
- 10) **Easo (Donostia, Gipuzkoa) – 0 puntu.**

Txapelduna: **Gros A** (Donostia, Gipuzkoa). Lehenengo Mailara jaitsi direnak: **Calasanz** (Gasteiz, Araba) eta **Easo** (Donostia, Gipuzkoa).

OHARRA.- Antza denez, Easo klub moduan desagertu da. Beraz, ez du Lehenengo Mailan jokatu. Txapelketa antolatu den moduan antolatu ondoren, Calasanzek datorren urtean Lehenengo Mailan jokatu duela pentsa daiteke. Hala ere, Ohorezko Mailan hasieratik erretiratu denez, ez dago erabat argi zer zigor dagokion: Lehenengo Mailara jaitsi edo Lurralde Txapelketara. Borroka juridikoa Arabako bi taldeen artean izanen da.

DONIBANE ETA ORVINA PODIUMETIK KANPO

Zortzigarren txandan Zornotzak 3'5-0'5 irabazi zion Donibaneri. Hirugarren mahaian Aitor Zabala Ormaetxek irabazi zion Anuar Egozcue Sghirri. Eraitza hori argituta, Zornotzak nahiko puntu ditu hirugarren geratzeko.

Iruñean Orvinak eta Grosek indarrak neurtu zituzten. Ohi bezala, Grosek garaipen argia eskuratu zuen: 0'5-3'5. Orvinak itxurazko taldea atera zuen, baina txapeldunek ez dute barkatzen. Lehia interesgarria lehenengo mahaian, Nazioarteko bi Maisuen artean. Orvinako Unai Garbisuk eta Groseko Alejandro Francok berdinketa egin zuten. Gainontzeko mahaian donostiarrek irabazi zuten: Santiago Gonzalez De la Torre Pablo Urrizari, Jose Luis Muñoz Avilak Gonzalo Mombielari eta Nathaniel Capote Robaynak Unax Senosiaini. Garaipen honekin Grosek bere nagusitasuna berretsi du. 9'5 puntuko abantaila atera dio Martintxo bigarren sailkatuari. Orvina, ordea, oso atzean geratu da: Zortzigarren, jokatu duten taldeen artean azkena. Trantsizio garaian dagoela dirudi eta eraitzetan nabaritzen da. Hori bai, bigarren eta zortzigarrenaren artean 5 puntu besterik ez dago.

Donibane 2'5-1'5 irabazi zion San Viatorri. Aurreko astean, Zornotzan, podiumean sartzeko aukera ia guztiak galdu zituen. Garaipen honekin bosgarren postua lortu du, bederen. Iñigo Martinezek eta Javier Lizuainek lortu zuten puntua Donibanerentzat eta Daniel Vara Del Bosque San Viatorrentzat.

Txapelketaren ondorioak: Grosek nagusitasuna berreskuratu du (dagoeneko 13 titulu ditu eta Sestaok, ordea, 9); pandemiak taldeen hierarkia aldatu du; Sestao erraldoia, momentuz, desagertu da; Easo, Batalla, Endrokoa eta denboraldi honetan bederen Calasanz ere desagertu dira; Orvina ahuldu da; Donibane ere bai, nahiz eta hobeto eutsi dion erronkari; talde berriak agertu dira Grosi itzala egiteko (momentuz urruti): Martintxo, Zornotza eta Conteneo; txapelketa nagusia da Euskal Herrian, jakina, baina kalitatea galdu du.

Informazio gehiago:
[lan=2&art=3&rd=1&turdet=YES](http://chess-results.com/tnr608396.aspx?lan=2&art=3&rd=1&turdet=YES)” webgunean.

[“http://chess-results.com/tnr608396.aspx?](http://chess-results.com/tnr608396.aspx?lan=2&art=3&rd=1&turdet=YES)

LEHENENGO MAILATIK JAITSIERA SAIHESTEKO LIGAXKA

2022-03-26: HIRUGARREN TXANDA

Santurtzi (Bizkaia) (4) – Oberena (Iruñea, Nafarroa) (5’5): 2’5-1’5.

Juan Carlos Fernandez Garcia (2.200) (Santurtzi) – Aurelio Vila Dupla (2.067) (Oberena): 1-0.

Martin Pascual Garcia (1.969) (Oberena) – Jose Angel Besga Lopez (2.014) (Santurtzi): 0-1.

Eneko Wu Martin (1.999) (Santurtzi) – Javier Yaben Muñoz (1.971) (Oberena): 0’5-0’5.

Gonzalo Martino Girones (1.628) (Oberena) – Denis Zubizarreta Landera (1.461) (Santurtzi): 1-0.

Mikel Gurea (Burlata, Nafarroa) (3) – Egidazu/Landetxo (Gasteiz, Araba) (3’5): 2’5-1’5.

Daniel Pinto Holguin (2.211) (Mikel Gurea) – Francisco Javier Ladron de Guevara Galar (2.037) (Egidazu/Landetxo): 1-0.

Aitor Arnal Iturgaitz (2.029) (Egidazu/Landetxo) – Alexandr Pedchenko Bondar (2.057) (Mikel Gurea): 0-1.

Sergio Anguas Fanlo (1.924) (Mikel Gurea) – Jorge Arce Balluerca (2.020) (Egidazu/Landetxo): 0-1.

Jose Antonio Landa Ceballos (2.003) (Egidazu/Landetxo) – Iker Fernandez Cobos (1.655) (Mikel Gurea): 0’5-0’5.

SAILKAPENA

1) Oberena (Iruñea, Nafarroa) – 7 puntu.

2) Santurtzi (Bizkaia) – 6’5 puntu.

3) Mikel Gurea (Burlata, Nafarroa) – 5’5 puntu.

4) Egidazu/Landetxo (Gasteiz, Araba) – 5 puntu.

Lurralde txapelketetara jaitsi diren taldeak: **Mikel Gurea** (Burlata, Nafarroa) eta **Egidazu/Landetxo** (Gasteiz, Araba).

OHARRA.- Easo desagertu denez, Mikel Gureak bere tokia beteko du. Beraz, ez da jaitsiko. Egidazu/Landetxo teorian jaitsi da, baina Calasanzek jasoko duen zigorraren zain dago. Ohorezko Mailan hasieratik erretiratutako taldea den Calasanzek jasanen duen zigorra Lehenengo Mailara jaitea bada, berak jokatu du Lehenengo Mailan. Baina zigorra Lurralde Txapelketara jaitea baldin bada, Egidazu/Landetxo taldeak Lehenengo Mailan jokatu du datorren urtean.

BIGARREN OHARRA.- Aurten Lehenengo Mailan 13 talde izan dira. Bost zuzenean jaitsi dira eta beste bi Ligaxka honetan (Easo eta Calasanz izan daitezke jaitsiko direnak, horien orde). Lau talde igoko dira Lurralde Txapelketetatik (bat Arabatik, bat Bizkaitik, bat Gipuzkoatik eta bat Nafarroatik). Beraz, datorren urtean, lehengo denboraldietan bezala, 10 talde izanen dira Lehenengo Mailan.

MIKEL GUREAK BERRIZ ERE SALBATU ZUEN BERE BURUA

Oberenena helburua ia lortuta zuen eta taldea zertxobait ahuldu zuen txanda honetan. Ez zuen ordaindu. Jokalari onak ziren eta puntu eta erdia eskuratzeko gai izan ziren. Santurtzik hiru jokalaria indartsu jarri zituen eta laugarrena elo gutxikoa. Hori (Denis Zubizarreta Landera) izan zen galdu zuena, Oberenako Gonzalo Martino Girones gaztearen aurka. 2.200eko Juan Carlos Fernandez Garciak Oberenako 2.067ko Aurelio Vila Duplaren aurka irabazi zuen. Santurtzik 2.014ko Jose Angel Besga Lopezek 1.969ko Martin Pascual Garcia garaitu zuen. Eneko Wu Martin eta Oberenako Javier Yaben Muñozen arteko partida berdinketan amaitu zen. 2'5-1'5 Santurtzirentzat. Oberena Fase honetako lehenengoa eta Santurtzi bigarrena. Biek erraz saihestu zuten jaitsiera.

Burlatan Mikel Gureako eta Egidazu/Landetxoko jokalariek bazekiten jaitsiera zutela jokoan. Easoren desagarketaren berri bazuten. Beraz, bazekiten talde batek mailari eutsiko ziola eta bestea jaitsiko zela (aldeko erabaki federatiboak tartean ez badaude, behintzat). Nafarrek garaipena behar zuten; gasteiztarrek berdinketa.

Segio Anguasek bazekien zer zegoen jokoan. Hala ere, huts larri bat egin zuen eta pieza bat galdu. Hortik aurrera, partidari buelta ematerik ez zen izan. Arabarrek hartu zuten abantaila, Jorge Arce Balluercari esker. Dena den, beste hiru partidak ongi bideratuta zituzten burlatarrek. Irabazteko moduko partida izan zuen Iker Fernandez Cobosek baina Egidazuko Jose Antonio Landa Ceballosek zaldi bat emanda posizioa berdinketara eramatea lortu zuen. Alex Pedchenkok pieza bat hartua zuen eta ez zuen gero huts egin. Puntua atera zuen Aitor Arnal Iturgaitzen aurka. Bukatzeko azkena Mikel Gureako izar berria izan zen. Daniel Pinto Holguin piezak ongi kokatuak zituen eta puntu bateko abantaila. Francisco Javier Ladron de Guevara Galar gero eta posizio okerragoa hartzen joan zen eta galdu zuen. Egidazu da jaisteko hautagaia. Mikel Gurea, aurretik Gros B-ren aurka egin zuen bezala, atakatik atera zen.

Informazio gehiago: “<http://chess-results.com/tnr619520.aspx?lan=2&art=46>”.

2022-03-26.

Iturria: “Ajedrezvasco.com” webgunea.